

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Juan Ciudad Fundazioak 2014ko "Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria jaso du

Sari horrekin, epaimahaiak ere Paciencia Melgar ahizparen eta "ebola-izurriaren aurka borrokatzen ari diren pertsona guztien" lana aitortu nahi du

Lunes, 27 de octubre de 2014

[Juan Ciudad Fundazioak](#) 2014ko "Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria jaso du Mendebaldeko Afrikako herrialdeetan [San Joan Jainkoarenaren Anaien](#) ospitaleetan egindako lanagatik, bai eta osasun-arazoei eta, bereziki, ahaztutako gaixotasunei buruzko (ebolaren kasua, adibidez) sentsibilizazio-lanagatik ere.



Nafarroako Jauregia.

Sari horrekin, epaimahaiak beste pertsona batzuek egindako lana ere aitortu nahi dute, "ebola-izurriaren aurka zuzenean edo zeharka borrokan ari diren lana, profesionalak eta herrialdeetakoak bertakoak diren boluntarioak, erakunde humanitarioetako borondatezko lankideak edo misioneroak izan daitezkeen pertsonen lana".

Alde horretatik, epaimahaiak nabarmendu du Paciencia Melgar ahizparen "lana, jarrera eta konpromisoa". Ahizpa hori Liberiarra joandako lau erlijiosoetatik bizirik irauten duen kutsatutako bakarra da, eta Monroviako San José ospitalean isolatuta zeudenak. Hark jasoko du datozen hilabeteotan, Iruñean, Juan Ciudad Fundazioaren saria.

Saritutako erakundeak saria (150.000 euro) San Joan Jainkoarenaren Anaiak Liberian eta Sierra Leonan ebola-gaixoei ematen dieten arretarako erabiltzea aurreikusten du; zehazki, Monroviako San José (Liberia) eta Lunsarreko San Juan de Dios (Sierra Leona) ospitaleek pixkanaka atek berriz ireki ahal ditzaten; ospitale horiek Miguel Pajares eta Manuel García erlijiosoek zuzentzen zuten, hurrenez hurren, gaitz horrengatik hildako bi espainiarrek.

Foru Gobernuak eta [Laboral Kutxak](#) emandako "Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Sariak nazioarteko lankidetzako edozein arlotan nabarmentzen diren erakunde edo pertsonak aitortzen ditu, bereziki [Milurteko Garapen Helburuak](#) lortzen nabarmendu direnak.

Saritutako erakundearen izena Miguel Indurain txirrindulari profesional ohiak eta epaimahaiburuak gaur eguerdian eman du

ezagutzera, prentsaurrekoan, Nafarroako Jauregian. Agerraldi horretan ere honako hauek parte hartu dute: Gizarte Politiken kontseilari Íñigo Allik eta Nafarroako Laboral Kutxako lurralde-zuzendari Javier Cortajarenak, sariaren finantzaketa guztiaz ardurazten den entitatea.

Juan Ciudad Fundazioa

1991. urtean San Joan Jainkoarenaren Anaiak sustatutako Juan Ciudad Fundazioak kongregazio erlijioso horrek txirotutako herrialdeetan dituen zentroen bidez egiten du lan, Sahara azpiko Afrikan bereziki, planetako eskualde txiroenetako batean.

Erakunde horrek (haren hautagaitza Garapen Solidariorako Erakundearen Sareak aurkeztu du) hain kaltetuak ez diren zonalde batzuetan ere talde ahulei arreta ematen die, esaterako: buruko gaixotasunak dituztenei, desgaituei, gaitz kronikoak dituztenei, drogazaletasuneko arazoak dituztenei edo beste baztertze-egoera batzuetan daudenei.

Juan Ciudadek dituen helburuen arabera, bere ekintza lau jarduera-eremuren bidez antolatzen du. Honako hauek dira: osasun-azpiegiturak eraiki nahiz hornitzea; laguntza humanitaria bidaltzea herri kaltetuenei osasun-arreta emateko; sentsibilizazio-proiektuak eta garapenerako hezkuntza; eta boluntariotzako programak.

Saria Ekuatore Gineako Paciencia Melgar ahizpak jasoko du Iruñean. 47 urte ditu eta Inmaculada Concepción Misiolarien kongregaziokoa da, eta hamaika urtez erizain aritu da Monroviako (Liberia) San Joan Jainkoarenaren Anaian ospitalean, hildako Miguel Pajares aitarekin batera, baliabide gutxiko gaixoak artatzen. Osasun-zentro horretan, ebolak kutsatutako pertsonak artatu dira azken hilabeteotan, eta han kutsatu zen birusarekin. Gaitza gairitu ondoren, haren seruma Teresa Romero erizaintzako laguntzailearen tratamenduan erabili da.

"Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria

"Nafarroa" Nazioarteko Saria 2001ean sortu zen Laboral Kutxaren laguntzarekin, eta haren helburua da, garapenerako nazioarteko lankidetzako edozein arlotan beren ibilbideगतिक nabarmendutako gobernu kanpoko erakundeek eta pertsona fisikoek egindako lana saritzea da eta, bereziki, Milurteko Garapen Helburuak betetzen lagundu dutena.

Sari horrekin ere nafarrak kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi dira, ikus dezaten herrialde eta herri txirotuetako sektore sozial kaltetuenei alde borondatezko lan solidarioak zer garrantzi duen.

Laboral Kutxa sariaren finantzaketa guztiaz arduratzen da, 27.000 euro; 15.000 sarirako eta 12.000 kudeaketa-gastuetarako. Aldiz, Gizarte Politiken Departamentuak honako hauei lotutako lanak betetzen ditu: sariaren zabalkundea, epaimahaia osatu eta antolatzea, hautagaitzak jaso eta aztertzea eta saria banatzeko ekitaldia.

Aurtengo edizioan 14 hautagaitza aurkeztu dira, eta haietatik epaimahaiak lau finalista aukeratu ditu, Juan Ciudad Fundazio sarituaz gain. Gainerako finalistak Anna Ferrer, Barraquer Fundazioa, Alta Verapazko Pastoal eta The Citizens Foundation izan dira.

Aurreko sarituak eta epaimahaia

Aurreko edizioetan honako hauek jaso dute sari hori: Martha Pelloni argentinarrak (2013), Mama Tunza keniarak (2012), Manuel Elkin Patarroyo zientifikoak (2011), Creative Handicrafts GKEak (2010), Aguaricoko Bikariotza Apostolikoak (2009), Mama Samateh Saidy eta Wassu Gambia Kafo GKEak (2008), San Joan Jainkoaren Anaia (2007), Fe y Alegría mugimenduak (2006), UNASO erakundeak (2005), Errefuxiatuentzako Jesuita Zerbitzuak (2004), Karitateko Ahizpa Misiolariak (2003) eta Muhammad Yunnus-ek (2002).

Miguel Indurain txirrindulari profesional ohia izan da epaimahaiburu eta epaimahaia honako hauek osatu dute: Gizarte Politiken kontseilari Íñigo Allik; Nafarroako Laboral Kutxako lurralde- zuzendari Javier Cortajarenak; Nafarroako Medicus Mundiko sortzaileetako bat den Miguel Ángel Argalek; Nazio Batzuen Milurteko Kanpainaren Tokiko Hiri eta Gobernuarekin (Europa) harremanak izateaz arduratzen den Xavier

Longanek; garapenerako hezkuntzako aditu María Luz Ortegak; eta Nafarroako UNICEFeko koordinatzaile Mainer Gabilondok. Idazkari-lanak, berriz, Pertsonak Garatu eta Gizarteratzeko Arreta Zerbitzuko zuzendari Andrés Carbonerok egin ditu.